

ERABAKIA, 2019ko AZAROAREN 26koa, UPV/EHuko IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARENA, HONAKO IRAKASLE-IKERTZAILE HAUEN IRAKASKUNTZA AHALMENA MURRIZTEKO PROZEDURA EZARTZEKO 2019/2020 IKASTURTEKO BIGARREN LAUHILEKORAKO: KARRERAKO FUNTZIONARIOA, BITARTEKO FUNTZIONARIOA, LAN KONTRATUDUN LANGILE FINKOAK, LAN KONTRATUDUN LANGILE EGONKORRAK EDO UPV/EHUren ZERBITZURA PLAZA HUTSETAN 6 URTETIK GORA BETE DITUZTEN BITARTEKO KONTRATUA DUTEN LANGILEAK, GUZTIAK GIZARTE SEGURANTZAKO ERREGIMEN OROKORREKOAK, ZAZPIGARREN XEDAPEN IRAGANKORRARI DAGOKIONEZ 205.1.a) ARTIKULUAN AURREIKUSITAKO ADINEAN ERRETIRATUKO DIRENAK, EDO URRIAREN 30eko 8/2015 LEGEGINTZAKO ERREGE DEKRETUKO 208.1.a) ARTIKULUAREN ARABERA ERRETIRO AURRERATUAK HARTUKO DUTENAK.

2015eko uztailaren 24an, horretarako sortutako Batzorde Teknikoan, UPV/EHUen erretiroa hartzearekin lotutako tratamenduari buruzko eta egoera horretara igarotzearekin zerikusia duten bestelako neurri batzuei buruzko Erabakia sinatu zuten unibertsitateko administrazioak eta UPV/EHuko sindikatuen ordezkaritzak.

Erabaki hori berretsi egin du UPV/EHuko Gobernu Kontseiluak, 2015eko urriaren 1ean egindako bileran.

2015eko uztailaren 24ko Erabakiaren zazpigarren puntuan aurreikusten da badela irakasle-ikertzaileen irakaskuntza ahalmena murrizteko aukera erretiro adinaren aurreko bost urteetatik hasita, baldin eta murrizketa horri heltzen dioten langileek onartzen badute erretiro arrunta dagokien adinarekin hartzea.

Hala ere, konpromiso hori hartu beharko da kotizaziopeko pentsioa jasotzeko Gizarte Segurantzaren Lege Orokorreko zazpigarren xedapen iragankorrari lotuta 205.1.a) artikuluan zehazten den adinera heltzean (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bateginari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak emandako idazkeran), artikulua hori aplikagarria den kasuetan.

Horregatik, ezinbestekoa da Erabaki horretan aurreikusitako neurria ahalik eta gehien iragarriko duen eta ahalik eta gehien zabalduko duen deialdi bat egitea; eta beharrezkoa da, halaber, berori gauzatzeko baldintzak, betebeharrak eta epeak arautuko dituen prozedura bat ezartzea.

UPV/EHuko Errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean emandako Ebazpenez (2017ko otsailaren 3ko EHAAn) eskuordetutako gaitasunen kariaz, ebazpena emango dut, honako Kidego eta irakaskuntza kategoria hauetako irakasle-ikertzaileen irakaskuntza ahalmenaren murrizketa eskatzeko prozedura.



arautzeko: karrerako funtzionarioa, bitarteko funtzionarioa, lan kontratudun langile finkoak, lan kontratudun langile egonkorrak edo UPV/EHUren zerbitzura plaza hutsetan 6 urtetik gora bete dituzten bitarteko kontratua duten langileak, guztiak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrekoak.

Lehenengoa.- Xedea

Honako Ebazpen honen helburua da Kidego eta irakaskuntza kategoria hauetako irakasle-ikertzaileen irakaskuntza ahalmenaren eta tutoretza orduen murrizketaren deialdia egitea: karrerako funtzionarioa, bitarteko funtzionarioa, lan kontratudun langile finkoak, lan kontratudun langile egonkorrak edo UPV/EHUren zerbitzura plaza hutsetan 6 urtetik gora bete dituzten bitarteko kontratua duten langileak, guztiak Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorrekoak, 2015eko uztailaren 24ko Erabakian arautua eta Gobernu Kontseiluak 2015eko urriaren 1eko bilkuran berretsia; bai eta beronen betebeharrak, baldintzak eta epeak ezartzea ere.

Bigarrena.- Arlo pertsonala

1. Ebazpen honetan bildutako neurriak honako irakasle-ikertzaile hauei aplikatuko zaizkie:
 - a) Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko karrerako funtzionarioak.
 - b) Bitarteko funtzionarioak.
 - c) Lan kontratudun langile finkoak.
 - d) Lan kontratudun langile egonkorrak.
 - e) UPV/EHUren zerbitzura plaza hutsetan 6 urtetik gora bete dituzten bitarteko kontratua duten langileak.
2. Era berean, 2015eko uztailaren 24ko Erabakiaren bigarren xedapen iragankorrean ezarritakoarekin bat etorrita, 2010eko uztailaren 15eko Erabaki bidez irakats betebeharra murriztuta duten pertsonen euren egoera erregularizatzeko aukera izango dute, hala egiteko eskatzen badute.

Hirugarrena.- Betebeharrak eta baldintzak

1. Deialdi honetan aurreikusitako onurez gozatu nahi duten Gizarte Segurantzako Erregimen Orokorreko lan kontratuko irakasle-ikertzaileek, irakaskuntza ahalmena murrizteko eskaeraren ondorioetarako datan (hau da, 2019/2020 ikasturteko bigarren lauhilekoaren hasieran), honako betebeharrak bete beharko dituzte:

a) 60 eta 64 urte artean izatea edo, interesatuak erretiro aurreratua bere borondatez hartu nahi badu, gutxienez 58 urte izatea, kontuan hartuta Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren testu bateginari buruzko urriaren 30eko 8/2015 Legegintzako Errege Dekretuak dioena 208.1.a) artikuluan (erretiro mota hori hartu ahalko da kasuan-kasuan aplikatu beharreko adina baino gehienez bi urte gutxiago baditu beteta interesatuak).

b) Gizarte Segurantzaren Testu Bateratuaren 161.1.a) artikulua ezarritako adinean erretiroa hartzea, Lege horren hogeigarren Xedapen Iragankorrean aurreikusitakoari dagokionez betiere, pentsioa kontribuzio modalitatean eskuratu nahi izanez gero.

c) Eskaera aurkeztu beharko da; haren eredu arautua Ebazpen honen eranskin gisa doa jasota.

2. Murrizketaz gozatzeko eskubidea honako baldintza hauen arabera eskuratuko da:

a) Murrizketaz gehienez ere 5 urtean gozatu ahal izango da.

b) Neurri honi heltzen dioten langileek irakaskuntza ahalmenaren eta tutoretza orduen honako murrizketa hau izango dute:

-Eskatutako erretiro data **ken bost** urte: **4 kreditu**. **tutoretza ordu 1 /astean**
-Eskatutako erretiro data **ken lau** urte: **6 kreditu**. **2 tutoretza ordu /astean**
-Eskatutako erretiro data **ken hiru** urte: **8 kreditu**. **2 tutoretza ordu /astean**
-Eskatutako erretiro data **ken bi** urte: **10 kreditu**. **3 tutoretza ordu /astean**
-Eskatutako erretiro data **ken urtebete**: **10 kreditu**. **3 tutoretza ordu /astean**

Laugarrena.- Eskaerak aurkezteko epea

- 1.- Eskaerak aurkezteko epea **2019ko azaroaren 26tik abenduaren 13ra bitartekoa izango da.**
- 2.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu ostean, deialdi honetan parte hartzen duten irakasle-ikertzaileek eurek egindako eskaeran amore ez emateko konpromisoa hartuko dute.

Konpromiso hori betetzen ez duten langileei ez zaie baimenduko irakaskuntza ahalmena murrizteko beste ezein deialditan parte hartzea.



3.- Era berean, epe hori igaro ostean, ez da irakaskuntza ahalmenaren murrizketa eskatzeko aukerarik izango 2019/2020 ikasturteko bigarren lauhilekorako, eta ezingo zaie honako deialdi honen xede diren neurriei heldu 2019/2020 ikasturtean zehar.

Bosgarrena.- Eskaerak

1.- Eskaerak Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari zuzendutakoak izango dira, eta honi erantsita doan ereduaren arabera egingo dira. UPV/EHUko Erregistro Orokorretan aurkeztu beharko dira, edo, bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua xedatutako beste zeinahi bidetatik.

2.- Eskaerarekin batera Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalak egindako txostena aurkeztu beharko da, non adieraziko den beren-beregi zein datatan hartu ahal duen interesatuak erretiroa.

EHUko erregistro bulegoak honako hauek dira:

ARABAKO CAMPUSA

- ✓ Arabako Campuseko Errektoreordetza. Izardui komandantea, 2, 01005 Gasteiz
- ✓ Hezkuntza eta Kirol Fakultatea - Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien atala, Lasarterako Bidea, z/g, 01007 Gasteiz

BIZKAIKO CAMPUSA

- ✓ Errektoregoa. Sarriena auzoa, z/g, 48940 Leioa
- ✓ Larrako Etxea, Agirre lehendakaria, 81, 48015 Bilbo
- ✓ Bilboko Ingeniaritza Eskola, Torres Quevedo Ingeniariaren Enparantza, 1, 48013 Bilbo
- ✓ Bilboko Ingeniaritza Eskola, María Díaz de Haro, 68, 48920 Portugalete

GIPUZKOAKO CAMPUSA

- ✓ Ignacio M^a Barriola Ikasgelategia, Elhuyar plaza, 1, 20018 Donostia
- ✓ Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea -Donostiako atala, Doktor Begiristain pasealekua, 105, 20014 Donostia
- ✓ Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola - (Eibar), Otaola hiribidea, 29, 20600 Eibar



Seigarrena.- Eskaeren ebazpena

- 1.- Eskaerak aurkezteko epea amaitu ostean, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzatik emango da ebazpena: onartutako edo/eta baztertutako eskaeren zerrenda egingo da, eta horren berri emango zaie pertsona interesdunei.
- 2.- Ebazpen horretan adieraziko da, halaber, zein den Administrazioak proposatutako irakaskuntza ahalmena murriztearen ondoriotarako data, eta baliteke ez etortzea bat interesdunak eskatutakoarekin, irakaskuntzaren lauhilekoko egiturarekin zerikusia duten arrazoiengatik.
3. Erabaki horretan adieraziko da, baita, zein datatan hartuko den erretiro partziala. Data hori izango da interesatuak eskatutakoa, bat badator aplikatu beharreko arautegian xedatutakoarekin; eta, betiere, administrazioak ez badu jarri behar beste data bat irakaslanaren lauhilekoen antolaketak eraginda edota txanda kontratua izenpetu behar duen langilearen kontratazioarekin zerikusia daukaten arrazoiak erretiroa hartzeko data atzeratzea eraginda.

Zazpigarrena.- Bateriaezintasuna

Irakaskuntza ahalmenaren hauetako zeinahi murrizketaz gozatzea ez da bateragarria izango erretiroagatiko bestelako prima edo kalte-ordainen bat jasotzearekin.

Zortzigarrena.- Konpromisoak

- 1.- Irakaskuntza ahalmena murrizteak esan nahi du interesdunak onartu egiten duela bere eskaeran adierazitako adinean erretiroa hartzea, eta horretarako konpromisoa hartuko du.
- 2.- Dagokion irakasleak ez balu konpromiso hori beteko, inolako arrazoi egiaztaturik gabe, Administrazioari itzuli beharko dizkio murrizketaz gozatutako irakastorduak.

Bederatzigarrena.- Aurrekontuaren erabilgarritasuna

- 1.- Egindako eskaera guztiak onartuko dira ala ez unean uneko aurrekontuaren erabilgarritasunaren arabera; betiere, guztia behar bezala egiaztatuta.



Araba, Bizkai eta Gipuzkoako campusetako erregistroen ordutegia hau da: astelehenetik ostegunera, goizez, 9:00etatik 13:00etara; arratsaldez, 15:00etatik 16:30era. Ostiraletan, udako lanaldian, eta udaberriko eta neguko txandetan, ordutegia 9:00etan hasi eta 13:00etara artekoa izango da.

3.- Eskaria posta bulegoetan aurkezten dutenek abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikulua xedatutako moduan aurkeztu behar dute. Dekretu horrek posta zerbitzuak arautzen ditu, eta honako hau xedatzen du:

"Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.

Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.

Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas."

4.- UPV/EHUko Erregistro Orokorrak arestian aipatutako UPV/EHUko Gobernu Kontseiluaren 2012ko maiatzaren 16ko Ebazpeneko I. Eranskinean daude zerrendatuta; zerrenda hori edonoren eskura dago nola UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan, hala Leioako Errektoregoko bulegoetan, Bilboko Larrako Etxean, Gasteizko Arabako Campuseko Errektoreordetzan eta Donostiako Ignacio M^a Barriola Ikasgelategian. Era berean, ikusgai dago Interneteko honako helbide honetan: www.ehu.es/oficinas_registro.html.



2.- Erabilgarri dagoen aurrekontua eskaera guztiak asetzeko nahikoa ez balitz, 2015eko uztailaren 24ko Erabakiaren Jarraipen Batzordean erabakitako irizpideak aplikatuko dira.

Hamargarrena.- Baliabideak

Honako Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkeztu ahal izango da, hilabeteko epean, Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordearen aurrean, edo zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da Bilboko dagokion Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.


Leioan, 2019ko azaroaren 26an

Sin.: Inmaculada Guerricagoitia Marina

IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEA
(2017ko urtarrilaren 25eko Ebazpena; 2017ko otsailaren 3ko EHAAn)

Nik, Pedro María Iriondo Bengoajauak, UPV/EHUko Idazkari nagusiak, ziurtatzen dut dokumentu hau hitzez hitz datorrela bat jatorrizkoarekin. Idazkaritza Nagusiko bulegoko buruak (2. zuzenbidea) bidez izenpea eskuordetuta Leioan, 2019ko AZARO (e)ko 26 (a)ren 26 a

Pedro María Iriondo Bengoa, Secretario General de la UPV/EHU, certifica que el presente documento concuerda literalmente con el original. delegación de firma, en virtud de la Resolución de septiembre de 2017, la jefe de negociado de Secretaría General (dot 2). Leioan, 2019ko AZAROA de 2019



**IRAKASLE-IKERTZAILE IRAKASKUNTZA AHALMENA MURRIZTEKO ESKAERA
(GIZARE SEGURANTZAKO ERREGIMEN OROKORREKO IRAKASLE-IKERTZAILEAK))**

IRAKASLE-IKERTZAILEEN ARLOKO ERREKTOREORDEARI

• **DATU PERTSONALAK**

IZEN-ABIZENAK:

IRAKASLE MOTA:

NAN ZK:

JAIOTZA DATA:

IRAKASLE MOTA:

TELEFONO ZENBAKIA:

1. Honen bidez adierazten dut erretiroa hartu nahi dudala data honetan:

20.....ko (a)ren (ea)n

2019ko azaroaren 26ko Ebazpen bidez iragarritako irakaskuntza ahalmenaren murrizketari helduta, eta murrizketaren ondorioarako data honako hau izan dadin eskatuta

2019/20 ikasturteko bigarren lauhilekoa

Eta egindako eskaeran atzera ez egiteko konpromisoa hartzen du, bai eta emango den ebazpenean adierazitako datan erretiroa jartzekoa ere, eta onartu, egiaztatuko arraziorik gabe hori bete ezean, Administrazioari itzuli dizkiola murrizketaz gozatutako ikastorduak.

..... (a)n, 2019ko (a)ren (ea)n

Sin:.....

